

**I. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA****Bizkaiko Foru Aldundia****Ogasun eta Finantza Saila**

1/2018 FORU DEKRETU ARAUEMAILEA, otsailaren 20koa, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko 1994ko azaroaren 9ko 7/1994 Foru Araua aldatzen duena.

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituna onartzen duen 2002ko maiatzaren 23ko 12/2002 Legearen 26. artikuluan ezartzen denez, Estatuak une bakoitzean ezarrita dituen edukizko eta formazko arau berberak erabiliko dira Balio Erantsiaren gaineko Zerga eraentzeko.

Sektore Publikoen Kontratuaren 2017ko azaroaren 8ko 9/2017 Lege berriak Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko 1992ko abenduaren 28ko 37/1992 Legea aldatu du; izan ere, ezartzen du entitate publikoek eginiko eragiketa jakin batzuk ez daudela zergapeturik.

Horri dagokionez, Europar Batasunaren araudiak ezartzen du jarduera-sektore batzuek zergapetuta egon behar dutela beti, jarduera administrazio publiko batek eginda ere. Jarduera-sektore horien barruan, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak 2016ko ekainaren 22an Český Rozhlas auzian emandako epaiaren ondorioz, beharrezkoa da sektore publikoko entitateek eginiko irati-telebistako jardueraren zergapetze-araubidea ondo zehaztea; izan ere, entitate horiek bakar-bakarrik egon daitezke zergapetuta eta kenkarirako eskubidea izan baldin eta jarduerak merkataritza-izaera badu.

Horrez gainera, prezioari lotutako diru-laguntzaren kontzeptua zehazten da BEZaren zerga-oinarrian sartzeko. Hain zuzen, kanpo geratzen dira administrazio publikoek zerbitzu publikoen operadoreari egiten dizkioten diru-ekarpenak, edozein delarik zerbitzuok kudeatzeko era, baldin eta lehiaren distorsiorik gertatzen ez bada; izan ere, oro har Administrazioak osorik edo partez finantzatutako jarduerak direnez, zerbitzuak ez dira nor-gehiagokarik gabeko araubidean ematen. Kasu horretan daude udal garraio-zerbitzuak eta honelako ekarpenen bidez finantzatutako kultura-jarduera batzuk.

Eragiketen prezioari lotuta ez dauden diru-laguntza hauek ez dute mugatzen operadoreek jasandako zergaren kenkarirako eskubidea.

Horrez gainera, prezioari lotutako diru-laguntzen kontzeptutik kanpo geratzen dira Administrazio Publikoak interes orokorreko jarduerak —hau da, hartzailea gizarte orokorra dutenak— finantzatzeko eginiko ekarpenak; izan ere, haietan ez dago identifikatekeen erabiltzaile jakinik, ez eta dagokion kontraprestazioa ordaintzen duenik ere.

Bestalde, 2017ko abenduaren 29ko 20/2017 Errege Lege Dekretuaren bidez tributuaren arloko zenbait neurri eta gizarte arloko presako beste neurri batzuk luzatzen eta onesten dira; bada, manu horren 3. artikulua bidez, 2018ko zergaldirako luzatzen dira Balio Erantsiaren gaineko Zergan araubide erraztua eta nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren araubide berezia aplikatzeko mugak.

Ekonomia Itunaren Legearen 26. artikulua bete behar denez, foru dekretu arauemaile honen bidez goiko aldaketak sartu behar dira Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko azaroaren 9ko 7/1994 Foru Arauan, era horretan eguneratuta geratzen baita zergaren araubide juridikoa.

Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko 2005eko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arauaren 8. artikuluan zehazten denez, Foru Aldundiak helburu bakarrarekin eman ahal izango ditu zergen arloan foru arau maila duten foru dekretu arauemaileak: Bizkaiko Lurralde Historikoko legeria egokitzeko, baldin eta, Ekonomia Itunean xedatutakoaren arabera, Lurralde Historikoan ere araubide erkideko lurraldean dauden arau substantibo eta formal berberak izan behar badute aginduzko. Bada, horregatik guztiagatik, Oga-



sun eta Finantzen foru diputatuak proposatu eta Foru Aldundiak 2018ko otsailaren 20an egindako bileran eztabaidatu eta onartu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT:

Artikulu bakarra.—*Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko 1994ko azaroaren 9ko 7/1994 Foru Araua aldatzea.*

Lehenengoa: Honako aldaketa hauek egiten dira Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko 1994ko azaroaren 9ko 7/1994 Foru Arauan, 2017ko azaroaren 10etik aurrerako ondorioekin:

Bat.—Berridatzi egiten da 7. artikuluko 8. zenbakia, eta honela geratzen da idatzita:

«8.

A) Administrazio publikoek zuzenean eginiko ondasun-emateak eta zerbitzu-prestazioak, bai eta C) eta D) letretan adierazitako entitateek eginikoak ere, baldin eta kontraprestaziorik gabe edo tributu erako kontraprestazio bidez egiten badira.

B) Aurrekoari dagokionez, hauek joko dira administrazio publikotzat:

- a) Estatuko Administrazio Orokorra, autonomia-erkidegoetako administrazioak eta toki-administrazioa osatzen duten erakundeak.
- b) Gizarte Segurantzako erakunde kudeatzaileak eta zerbitzu erkideak.
- c) Erakunde autonomoak, unibertsitate publikoak eta Estatuko agenziak.
- d) Nortasun juridiko propioa duen zuzenbide publikoko edozein erakunde, aurrekoen mendekoa izanik eta independentzia funtzionala edo legeak aitortutako autonomia berezia izanda, sektore edo jarduera jakin baten kanpoko erregulazioa edo kontrola egiteko eginkizunak badagozkio.

Ez dira administrazio publikotzat joko Estatuaren enpresa-erakunde publikoak eta autonomia-erkidegoen zein toki-erakundeen mende dauden haien mendeko pareko erakundeak.

C) Ez daude zergapetuta sektore publikoko entitate, organismo eta erakundeek enkarguz ematen dituzten zerbitzuak baldin eta entitate, organismo eta erakundeok Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 32. artikulua araberaren badute enkargua egin duen botere esleitzaiaren bitarteko propio pertsonifikatuaren izaera, betiere 32. artikuluko horretan ezarritakoarekin bat.

D) Halaber, ez dira zergapetuta egongo Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 3. artikuluko 1. zenbakian aipatzen denaren araberaren sektore publikoak diren entitate, organismo eta erakundeek gainetik dituzten administrazio publikoen alde edo administrazio horietako baten erabat mendekoa den beste baten alde emandako zerbitzuak, administrazio publiko horiek zerbitzu haien erabateko titulartasuna dutenean.

E) Goiko C) eta D) letretan adierazitako eragiketetan bezala, ez dira zergapetuta egongo letra horietan aipatutako entitateen artean ematen diren zerbitzuak, entitateok osorik badaude administrazio publiko beraren menpe.

F) Edonola ere, zergapetuta egongo dira sektore publikoko administrazioek, entitateek, organismoek eta erakundeek ondoren aipatzen diren jardueren barruan egiten dituzten ondasun-emateak eta zerbitzu-prestazioak:

- a') Telekomunikazioak.
- b') Ura, gasa, beroa, hotza, energia elektrikoa eta gainerako energia-modalitateak banatzea.
- c') Pertsonak eta ondasunak garraiatzea.



- d') Portu eta aireportuetako zerbitzuak ematea eta tren-azpiegiturak ustiatzea; ondorio horietarako, hurrengo 9. azpizenbakiaren arabera zergapetuta dauden emakidak eta baimenak ere hemen sartzen dira.
- e') Produktuak lortzea, fabrikatzea edo transformatzea gero eskualdatzeko.
- f') Nekazaritza eta abeltzaintzako produktuen gainean esku hartzea, produktuen merkatua arautzeko egiten denean.
- g') Merkataritzako azoka eta erakusketak ustiatzea.
- h') Biltegiatzea eta gordailatzea.
- i') Publizitateko merkataritza-bulegoetako jarduerak.
- j') Enpresetako kantinak eta jantokia, ekonomatuak, kooperatibak eta antzeko establezimenduak ustiatzea.
- k') Bidaia-agentzietako jarduerak.
- l') Irrati- eta telebista-erakunde publikoen merkataritzako jarduerak, haien instalazioen erabilera lagatzeari lotutakoak barne.
- m') Hiltegiko jarduerak.»

Bi.—Berridatzi egiten da 78.Bi artikuluko 2. zenbakia, eta honela geratzen da idatzita:

«2. Zergapeko eragiketen prezioari zuzenean loturiko diru-laguntzak.

Entregatutako unitate-kopuruaren arabera edo egindako zerbitzuen bolumenaren arabera ezarritako diru-laguntzak zergapetutako eragiketen prezioari zuzenean lotuta egongo dira, betiere eragiketa egin aurretik finkatzen direnean.

Edonola ere, administrazio publikoek finantzatzeko egiten dituzten diru-ekarpenak, edozein delarik ere haien izena, ez dira prezioari lotutako diru-laguntzat hartuko eta ez dute osatuko inola ere artikuluko honen Bat zenbakiko kontraprestazioaren zenbatekoa:

- a) Zerbitzu publikoen edo kultura-sustapenaren kudeaketa, lehiaren distortsio esanguratsurik ez dagoenean, edozein izanik ere zerbitzuak kudeatzeko era.
- b) Interes orokorreko jarduerak, hartzailak identifikatu ezin badaitezke eta hartzailak kontraprestaziorik ordaintzen ez badute.»

Hiru.—Kendu egiten da 78.Hiru artikuluko 4. zenbakia.

Lau.—Berridatzi egin da 93. artikuluko 5. zenbakia, eta honela geratzen da idatzita:

«Bost. Zergapeko eragiketak eta, foru arau honen 7.8. artikuluan ezarritakoa aplikatuta, zergapetuta ez dauden eragiketak batera egiten dituzten subjektu pasiboek aukera izango dute eragiketa batzuk eta besteak egiteko aldi berean erabilitako ondasunak eta zerbitzuak eskuratzeko jasandako kuotak kentzeko; horretarako, zergapeko eragiketak garatzeko erabilitako ondasunei eta zerbitzuei dagozkien kuotak egozteko irizpide egoki eta homogeen bat hartuko dute kontuan. Ondorio hauetarako, foru arau honen 94.Bat artikuluko 2. zenbakian aipatzen diren eragiketak ere hor sartzen dira. Irizpide horri denboran eutsi behar zaio, arrazoizko kausek eraginda aldatu behar denean izan ezik.

Horretarako, kontuan hatu ahal izango da zergapeko eragiketen ondasun-emaiteen eta zerbitzu-prestazioen zenbateko osoak —urte natural bakoitzerako zehaztutako Balio Erantsiaren gaineko Zerga kenduta— zer proportzio osatzen duen subjektu pasiboak bere jarduera dela-eta urte natural bakoitzean guztira lortzen dituen sarreren gainean.



Irizpide hori aplikatuta sortzen den kalkulua behin-behinean zehaztu ahal izango da, aurreko urte naturaleko datuak kontuan hartuta, urte bakoitzaren amaieran egin beharreko erregularizazioa gorabehera.

Aurrekoa hala bada ere, ez dira kengarriak izango —ez eta proportzioan ere— foru arau honen 7.8. artikuluan aipatzen diren zergapetu gabeko eragiketak egiteko soil-soilik erabili diren ondasun edo zerbitzuen eskuraketengatik edo inportazioengatik jasandako edo ordaindutako kuotak.

Zenbaki honetan ezarritako kenkariak foru arau honen VIII. tituluko I. kapituluaren ezarritako baldintzak eta betekizunak bete beharko dituzte, eta, bereziki, hainbataketa-erregelari dagozkionak.

Zenbaki honetan ezarritakoa ez zaie aplikatuko zerbitzu publikoak kudeatzeko jardueri foru arau honen 78.bi artikuluko 2. zenbakiko a) letran ezarritako baldintzetan.»

Bigarrena: Berridatzi egiten da Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko 1994ko azaroaren 9ko 7/1994 Foru Arauaren hamahirugarren xedapen iragankorra, 2018ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin; honela geratzen da idatzita:

«*Hamahirugarrena.*—Araubide erraztuaren eta nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzako araubide bereziaren aplikazioaren mugak 2016, 2017 eta 2018ko ekitaldietan.

2016, 2017 eta 2018ko ekitaldietarako, 250.000 euroan finkatzen da foru arau honen 122.bi artikuluko 2. zenbakiaren lehen gidoian eta 3. zenbakian eta 124.bi artikuluko 6. zenbakian jasotako 150.000 euroko zenbatekoa.»

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

INDARREAN JARTZEA

Foru dekretu arauemaile hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean, eta beronen artikuluetan ezarritako egunetatik aurrera izango ditu ondorioak.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

AHALMENA EMATEA

Baimena ematen zaie Bizkaiko Foru Aldundiari eta Ogasun eta Finantzen foru diputuari, foru dekretu arauemaile hau garatu eta betearazteko beharrezkoak diren xedapenak eman ditzaten.

AMAIERAKO HIRUGARREN XEDAPENA

BATZAR NAGUSIEI IGORTZEA

Bizkaiko Kondaira Lurraldeko Foru Erakundearen Hautapen, Antolaketa, Erregimen eta Funtzionamenduari buruzko 1987ko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauan xedatutakoarekin bat etorriz, foru dekretu arauemaile honen onespeneraren berri emango zaie Batzar Nagusiei, berrets dezaten.

Bilbon, 2018ko otsailaren 20an.

Ogasun eta Finantzen foru diputatua,
JOSE MARIA IRUARRIZAGA ARTARAZ

Ahaldun Nagusia,
UNAI REMENTERIA MAIZ